

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko maiatzaren 20an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**8.- KULTUR EKINTZETAN LAGUNTZA LANAK EMOTEKO ZERBITZU KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzua behin-behinekoz esleitzea.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2009ko martiaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko kontratu zerbitzuari buruz ondorengoa ontzat hartu eban:

- Esleipena egiteko jardunbideari hasikerea emotea.
- Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzu kontratuaren baldintza-agiriak onartzea.

Bigarrena: 2009ko apirilaren 27an, kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzu kontratuaren kontratazino mahaia batu da, Bermiopost, SLren eskaintza bakarra aztertzeke.

Hirugarrena: 2009ko maiatzaren 4an, Bermiopost, SLri jardunbide negoziatuan parte hartzeke gonbitea bidali jakon.

Laugarrena: 2009ko maiatzaren 18an, Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzu kontratuaren kontratazino mahaia batu da, Bermiopost, SLk aurkeztutako proposamen ekonomikoa aztertzeke.

**Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

**BAKARRA**: Kultur ekintzetan laguntza lanak emoteko zerbitzu kontratua behin-behingoaz Bermiopost, SLri esleitzea, proposamen ekonomikoa agertzen dan prezioen zerrendan oinarrituz.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko maiatzaren 22an.

ONETSIA  
ALKATEA